

# Meñakako berba konposatuen azentuaz

IÑAKI GAMINDE

## 0. SARRERA

Lan honetan Meñakako euskararen azentueraren ezaugarri nagusiak aurkeztzen ditugu. Meñaka iparraldeko bizkaieraren eremuan kokatuta dago; azentuerari dagokionez, doinu-azentudunen barietateen eremuaren barruan Getxo-Gernika izendatukoaren barruan agertzen da. Barietate honetako beste herri batzuetako azentueren ezaugarriak aurkitzen ditugu Meñakan ere; lan honetan, oster, berba konposatuen azentueraren gainean jardungo dugu beren-beregi.

Helburuak eta metodologia zehaztu eta ostean bigarren sekzioan azentuera honen ezaugarri nagusiak eta adibideak emango ditugu. Hirugarren sekzioan erakarpen atzizkien gainean jardungo dugu; sekzio honetan atzizki azentudunak eta azentubakoak bereiziko ditugu. Laugarren sekzioan berba elkartuen azentuera aztertuko dugu. Azkenik, ondorio batzuk eta hurrengo beharretarako proposamenak irudikatuko ditugu.

## 1. HELBURUA ETA METODOLOGIA

Artikulu honen helburu nagusia, materialak agertarazteaz gain, Meñakako euskararen berba konposatuak egikeran azentu ereduak deskribatzea da. Batetik, atzizkien propietateak eta sailkapena egingo dugu eta, bestetik, berba elkartuetan azentuera nagusiaren deskribapena (flexio atzizkien gainean Gaminde 1998 ikus daiteke).

Metodologiari dagokionez, aurkeztzen ditugun material guztiak gure “Meñaka barbarik berba” izeneko lanerako jasokoak izan dira. Material horiek jasotzeko elkarrizketa gidatuak erabili genituen bertako 27 informantzailerakaz; euren edadeak 39-87 urte bitartekoak izan dira eta denak bertakoak; era honetara 40 bat orduko korpua jaso dugu. Behar honetarako mate-

rial horiekaz batera Isabel Ibartzabal-egaz egineko itaunketa zuzenak ere erabili ditugu; informatzaile honek beharrean jasotako lexiko osoa bakarrean eman zuen; korpus hori da, hain zuzen, behar honetarako gehien erabili duguna. Material guztia “minidisk” deritzon sistema digitalaren bidez jasoa izan da; behin ordenagailuan digitalizatuz gero “ahot” etiketatzailearen bidez aztertu ahal izan dugu.

## 2. MEÑAKAKO AZENTUERA

Gorago esan dugun moduan, Meñakako azentuera doinu-azentudun barietateen eremuan kokatzen da. Hualdek (1997) Gernikarako eta Gamindek (1999) Bakiorako emandako ezaugarrien arabera, sailka ditzakegu Meñakako ezaugarri nagusiak ere; ezaugarriok ondoko hauek dira:

- Bereizketa lexikoa: Morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan daitezke, [+am] atzizkiek azentua aurreko silaban ezartzen dutelarik.
- Hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea. Hitzean eratorpen atzizki bortitz bat badago, atzizki honek oinarri osoaren azentuera erabakitzen du.
- [+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabak jasotzen du azentua

Morfema azentubako eta azentudunen arteko bereizketaren bidez ondoko moduko kontrasteak sortzen dira lexikoan:

txistué (txistua, txua)	txístue (txistua)
otíá (otea)	ótia (otea, oiloek lo egiteko)
artíá (arbola mota)	ártia (arte, bitarte)
sosoá (zozoa)	sósoa (gazbakoa)
kaderíá (oina)	kadéria (mokorra)

Atzizki batzuek daukaten funtzio edo esangura bikoitza dela eta kontrasteak sor daitezke, adibidez:

basurerué (zabor-biltzailea)	basurérue (zaborteia)
fruterué (fruta saltzailea)	frutérue (fruitontzia)
karteríá (postaria)	kartéria (diru-zorroa)
kafeteríá (kafezalea)	kafetéria (kafegailua)
enfardadoríá (fardo egilea)	enfardadória (fardoak egiteko gailua)

Antzerako pareak topa ditzakegu berba elkartu (b.e.) eta sintagmen (i.s.) artean; adibidez:

buru andidxé (i.s.)	burú andidxe (b.e.)
ule gorridxe (i.s.)	ulé gorridxe (b.e.)
ule suridxé (i.s.)	ulé suridxe (b.e.)

Izen sintagmaren barruan, barietate bereko garaiteko herrietan jazotzen den legez, berba azentudunen bat egonez gero, lehen azentuak erabakitzen du berorren kokagunea:

léku + ona	léku ona
dénpora + txarra	dénpora txarra
eskóla + andidxe	eskóla andidxe

“da” adizki klitikoagaz batera jasotako ondoko adibideetan ikusten den legez, morfema azentudunik egon ezta, azentua talde osoaren azken silaban txertatzen da (a). Morfema azentudunik egonez gero, azentua ez da lekutzen (b):

- (a) ure dá, ona dá, baltza dá, suridxe dá, semia dá, gastia dá, alabia dá, alargune dá, e.a.  
 (b) léngusue da, ólloskoa da, egúskidxe da, básue da, égidxe da, íntxurre da, e.a.

Azentueraren gauzaren fonetikoari dagokion esparruan, Gaminderi (2000) jarraikirik, silaba azentudunean H\*L azentu-tonuduna txertatzen da; lekua edukiz gero H- sintagma tonua bigarren silaban txertatzen da; azkenik, H- tonutik H\* tonuraino hedatzen da tonu altua; araua ondoko hau dugu:  
 %L (H-).... H\*L

Aitatuko sailkapenaren arabera izen eta adjektiboak azentubako eta azentudunen artean sailka ditzakegu. Hona hemen izen eta adjektibo azentubakoak silaba kopuruen arabera<sup>1</sup>:

**o-ó:**

aitxé	altzá	amá	arrá	atxá
atzá	baltzá	bedxé	biá	bitzé
ertzá	euntzé	eutzé	fiñé	gantzá
gatxá	gatzá	geué	giltzé	godxé
gorrá	keá	ledxé	loidxé	lurré
matzá	miá	miñé	motzá	olá
oná	ortzá	otzá	oyá	saidxé
saná	sarrá	sená	señé	siá
sillé	sitzé	sué	suñé	surré
txalá	txarrá	uné	uré	utzé

**o-o-ó:**

adarrá	adurré	agiá	agiñé	agoá
aistiá	aixalá	aixiá	akarrá	alboá
aldatzá	alperrá	altozá	andidxé	andriá
ankiá	apatzá	ardawá	ardidxé	argalá
argidxé	ariá	aridxé	ariñé	aritxé
armiñé	aroá	arotzá	arrañé	arridxé
arroá	arrosá	artoá	asalá	asiá
asidxé	astiá	astoá	astulé	astuné
asulé	asuné	asurré	atiá	atuné
atxurré	babíá	balkoyá	baraué	bariá
barridxé	basiá	basoá	bedarrá	begidxé
beluné	berbiá	berdiá	berniá	beroá
besoá	biarrá	bidíá	bidxorrá	bidxotzá
bietzá	biguné	billotzá	billurré	biorrá
biroá	bisdiá	biskerrá	bixerrá	boltziá
esniá	espaná	gorridxé	koipiá	kokotá
kolkoá	kordelá	kordoyá	kotxoá	koxoá
kurtziá	kuskurré	labaná	labiá	laburré
laguné	lanbroá	lañoá	lapurré	lebatzá

<sup>1</sup> Esangurak kontsultatzeko Meñaka Berbarik Berba ikus daiteke; era berean beronen bertsio elektronikoa denak entzun daitezke.

leixarrá	leñoá	lepoá	lierrá	liorrá
lobiá	lodidxé	loriá	lotziá	lumiá
lupué	lurruné	lusiá	magalá	mamiñé
mamurré	mandoá	mankué	mantelá	marroyá
matrallé	mendidxé	mengelá	mentxué	mesiá
mikiá	mingotzá	moskorrá	mostoá	mundué
muniá	musturré	mutillé	mutué	nabarrá
narrué	nebiá	negarrá	negué	neskiá
odedxé	odolá	ogidxé	okotzá	olliñé
olloá	onillé	opillé	orbelá	ormiá
orpoá	orridxé	ortué	osoá	otiá
paliá	paparrá	papué	patiñé	pernille
pikué	piperrá	pitxerrá	pitxidxé	platerá
politté	porrué	potixé	putxiá	sabalá
sagarrá	sagidxé	sagué	sakoná	sakué
saldíá	saldidxé	saltziá	samiá	samurré
santzoá	sapiá	sapoá	saraná	saratiá
saratzá	sardiá	sasidxé	satarrá	satidxé
satorrá	sauridxé	sayetzá	sekorrá	selaidxé
semiá	serriá	serué	sikué	silbotá
sokiá	soloá	sopiá	oroá	sorridxé
sorué	subidxé	suloá	suridxé	surruné
sustredxé	tariñé	trentziá	tripiá	tropiá
trugoyá	txakurré	txapelá	txarridxé	txatxarrá
txikerrá	txiliñé	txingorrá	txistué	txopoá
txoridxé	udiá	ugelá	ugerrá	uliá
umiá	urdallé	urriá	urtiá	uruné

**o-o-o-ó:**

abadiá	abarkiá	aberatzá	afaridxé	agostué
alabiá	alarguné	aldamená	alkatiá	anaidxiá
antojué	arkeroá	arlotiá	armosué	arratoyá
arrebíá	arrosidxé	atzamarrá	atzasalá	barakillé
barandiá	barrabasá	bellegidxé	besegué	bijilidxé
biribillé	bunburidxé	edadiá	egarridxé	elixiá
eperdidxé	erramiá	erramué	erropiá	errotiá
espatiá	ganadué	garrafoyá	gerixiá	gidxarriá
gixedué	guntzurruné	idxeltzoá	iñestué	ittugiñé
itxosoá	itxurridxé	ixekoá	ixerdidxé	kaderiá
kamiñoá	karakolá	koñatiá	koñatué	konbideué
koñetué	kridxadiá	kridxedué	madaridxé	materidxé
memoridxé	morokillé	nardakiá	okeliá	ollendiá
oñestué	oraiñená	oridxoá	orrasidxé	osabiá
pintturiá	sapatiá	sargoridxé	sokorrué	soñekoá
sorbaldiá	taberniá	tenedorá	tenporalá	tentziñoá
txakoliñé	txaramelá	txaranbelá	txikotiá	txirrittolá

**o-o-o-o-o-ó:**

arrakadiá	eskilleriá	igetargidxé	kirikolatzá	kostipedué
-----------	------------	-------------	-------------	------------

Izen eta adjektibo azentudunen adibideak emateko silaba kopuruak eta azentuaren kokapena hartuko ditugu kontutan.

**ó-o:**

géune	láidxe	láixa	máidxe	txóla
-------	--------	-------	--------	-------

**ó-o-o:**

ábidxe	áitxitxe	áltue	ámoma	ápatxa
árria	bárria	báspidxe	básue	béstia
bídxaoa	bígia	buéltia	búrria	bútroya
déndia	dxórraidxe	égidxe	énbria	éria
éumia	fwértia	gángarra	gánia	gántxoa
gélia	gólpia	gónia	gónia	górtia
gústue	íntxurre	jéntia	káfia	kálloa
kámia	kántia	kásue	kílloa	kóixoa
kóllue	kópue	kótxia	kuártue	kúnia
lántzarra	látia	lékue	lópia	lústria
márkia	méidia	méixue	mókille	mókoa
móñoa	múskerra	náboa	nástia	nátia
óllarra	órdué	órrotza	pálue	pápaue
pátoa	páusue	pékia	péskia	pílloa
pístia	pístidxe	póstria	pótia	púlpia
réumia	sáldarra	sália	sápidxe	séstoa
síllia	síporra	sóltue	sórkidxe	sósoa
sótoa	súndia	sútia	swábia	táloa
tánkia	tárroa	trángoa	tránkia	trónkoa
twértoa	txáloa	txápia	txíntxarta	txístille
txístue	txókiñe	txókoa	úrdidxe	

**o-ó-o:**

atórra	buskéntza	sarténa		
--------	-----------	---------	--	--

**o-ó-o-o:**

afrúntue	alánbria	alégria	améntala	angíllia
angúlia	aráñia	ardíllia	ardúria	arkásidxe
arrákala	aspíria	bekókidxe	bendéjia	bentánia
berákatza	berésidxe	biñégria	biségría	bogádia
boltzílloa	bustérridxe	domékia	dotória	egúskidxe
elástune	enbúdoa	enplástue	erídia	errékia
eskúsue	eskúture	espíllue	etxúria	eurbéria
famílidxe	frantzésia	freskúria	frontéria	galtzérdidxe
garbántzue	gastáñia	gatzátue	girgíllue	ikúbille
iñúrridxe	irrintzidxe	ixéria	kandélia	karrájue
kaskállue	kasuélia	katíllue	katxárroa	keríxia
kinpúlia	kodáñia	kollária	konéjue	kontzójue
kosíñia	kutxílloa	lapíkoa	lentéjia	letxúgia
mallúkidxe	okérana	osália	otzária	palómia
paséoa	pasíllue	pertzónia	pestáñia	pistólia
portália	postúria	potíkia	pregúntia	pustíllia
sakóstia	sapátue	solómoa	sugúntxille	tajádia
titéria	tximínidxe	txitxárroa	txoríxo	ugésaba

**ó-o-o-o:**

árbolia	árkoirixe	árrotzia	báserridxe	bélarridxe
béskaridxe	bísperia	dénporia	drúngulue	érderia
gáldaria	ínyabia	kámaria	kápritxoa	kárkabia
lándaria	lástimia	léngusiñe	léngusue	mákkaltoa
músikia	nóbidxia	nóbidxoa	númeroa	ólloskoa
pátatia	rúbidxoa	tálletue	tómatia	txíkeria

**o-o-ó-o:**

galtzetíñe

**o-o-ó-o-o:**

abarkétia	barandíllia	beridxéndia	enbarásue	ensaládia
errebuéltia	estropósue	kalentúria	kamisétia	kaperídxoa
kutxaríllia	maripósia	txiringórdaue	urubídxoa	

**o-ó-o-o-o:**

arkóndaria	arránkaridxe	damístikue	estómague	karámelue
------------	--------------	------------	-----------	-----------

Aditz partizipioei dagokienez, sailkapen bera egin dezakegu; batetik, partizipio azentubakoak eta bestetik azentudunak:

**o-ó:**

aittú	altzéu	así	astú	bistú
bustí	dxagí	dxagón	dxalgí	dxosí
ebái	edán	ekíñ	eldú	emón
entzún	erré	esán	eukí	galdú
gastéu	geittú	gordé	idxén	irí
ittó	itxí	itxún	ixén	ixí
kantéu	kendú	kobréu	loitxú	lotú
olgéu	ostú	paréu	paséu	pentzéu
saldú	sartú	soldú	soltéu	topéu
trokéu	urtén	urtú	uséu	

**o-o-ó:**

afaldú	agertú	amaittú	apurtú	argaldú
asetú	atará	atertú	berotú	betetú
bidxortú	biundú	damutú	dxesarrí	egosí
ekarrí	erantzí	erosí	esetú	eskatú
eskegí	eskondú	etorrí	garbitxú	garrastú
geixotú	gixondú	gogortú	gorrittú	ibillí
igerrí	ikesí	ikusí	ikutú	imiñí
irikíñ	iruntzí	istutú	itxundú	ixilyú
kabidú	konpondú	laburtú	lagundú	larrittú
lodittú	loditxú	makurtú	miestú	mingostú
mogidú	ondatú	orrastú	osatú	otzitxú
prijidú	sabaldú	sakondú	segidú	serratú
siketú	sorotú	sorrostú	tiretú	txikertú

**o-o-o-ó:**

atrebidú  
alargundú  
bereinketú

**ó-o:**

béittu	bóta	bwélteu	dxádxo	dxéusi
éroan	kóyu	píkeu	únteu	násteu

**o-ó-o:**

akábeu	akórdeu	allégeu	amáteu	antójeu
despísteu	entéreu	itxéron	kastígeu	pregúnteu

**ó-o-o:**

íxartu	kórdatu	sákatu	gáratu
--------	---------	--------	--------

**o-ó-o-o:**

andíkittu	asárratu	ikératu	irébasi	irúkurtzi
-----------	----------	---------	---------	-----------

**o-o-ó-o:**

errebáseu	estropéseu	iribídxeu
-----------	------------	-----------

**ó-o-o-o:**

átzeratu	kónturetu	múnarrittu
----------	-----------	------------

### 3. ERATORPEN ATZIZKIAK

Eratorpen atzizkiak multzo nagusi bitan sailka ditzakegu; atzizki batzuk azentubakoak dira eta beste batzuk azentudunak.

#### 3.1. Atzizki azentubakoak

Atzizki azentubakoak erroari eransten zaizkio eta, erroa azentubakoa bada, azentua azalean hartzen dute azken silaban. Erroa azentuduna denean, erroaren azentua gailentzen da. Jokabide hau erakusten duten atzizkiak ez bortitzak dira. Hala ere, beste atzizki batzuek erroaren azentua ezabatzen dute; erroa azentubakoa denean oinarriaren amaieran txertatzen da azentua. Atzizki hauek bortitzak direla esan dezakegu. Atzizki azentubako ez bortitzen artean honako hauek ditugu:

**ADA:**

abidxediá	abornadiá	adarkadiá	aginkediá
askorakadiá	astrakadiá	astrapaladiá	betekadiá
dardakadiá	erreskadiá	eupediá	korroskadiá
labankadiá	laprastadiá	ostikediá	porrustadiá
saparradiá	sapladiá	sarpadiá	tirekadiá
topekadiá	txangotadiá	txatxamurkediá	txiliprestadiá
urrutediá			

**DUN:**

astaduné	berbatuné	bixerduné	botoiduné	buruduné
diruduné	dxatuné	dxostuné	edatuné	egurduné

**ERA:**

Agentea adierazteko denean azentubakoa da:

bendejeriá	esnplasteriá	erregateriá	fruteriá	karteriá
kosiñeriá	pantaloneriá	parteriá	santeriá	kafeteriá

**ERI:**

Multzoa adierazteko denean azentubakoa da: gasteridxe, sastarreridxe

**ERU:**

Agentea edo ogibidea adierazteko:

anderué	arrotzerué	barberué	basurerué	erregaterué
fruterué	kamarerué	kamiñerué	karnaserué	karreterué
karterué	kaserué	letxerué	panaderué	sapaterué

**GARRI:**

baragarridxe	gosagarridxe	negagarridxe	billurgarridxe	ikusgarridxe
kaltegarridxe	kantzagarridxe	lotxagarridxe	penagarridxe	posgarridxe

**GIN:**

argiñé	biargiñé	bixergiñé	ikesgiñé
--------	----------	-----------	----------

**KERIA:**

alperreridxe	arrokeridxe	astokeridxe	miskeridxe	mískinkeridxe
sorokeridxe	sorginkeridxe	txarrikeridxe	ugerkeridxe	umekeridxe

**OI:**

balkoyá	botoyá	busoyá	errosoyá	frontoyá
garrafoyá	kamioyá	kordoyá	limoyá	morroyá
takoyá	sankarroyá	turroyá	kantoyá	dxagoyá

**ORE:**

aministradoriá	peskadoriá	pastoriá	korredoriá	enterradoriá
----------------	------------	----------	------------	--------------

**TASUN:**

argittasuné	berotasuné	bustittasuné	garbittasuné	gastetasuné
gorrittasuné	gortasuné	illuntasuné	istutasuné	itxittasuné
itzutasuné	ixiltasuné	laguntasuné	loittasuné	makaltasuné

**SIÑO:**

afisiñoá	apartasiñoá	atentziñoá	autorisasiñoá	bereinkesiñoá
burutasiñoá	dijestiñoá	diputasiñoá	diskusiñoá	edukasiñoá
errementasiñoá	erreuniñoá	esplikasiñoá	misiñoá	laguntziñoá

**SKOA:**

algodoiskoá	andraskoá	ariskoá	aritxeskoá	arrikoá
bakeskoá	bereskoá	bróntzeskoa	burriñeskoá	edurreskoá
égiskoa	eguneskoá	énbraskoa	érderaskoa	éuskeraskoa
gánoraskoa	geueskoá	gixoneskoá	gómaskoa	itzeleskoá
kóbreskoa	okelaskoá	narruskoá	oleskoá	urreskoá

**TO/DO:**

obetó	ondó	polittó	txartó	edertó
-------	------	---------	--------	--------

**TZU:**

bárretzue	lañotzue	odeitzue	urtzue	urtetzue
uletzue	osasuntzue	dirutzue	arritzue	euritzue



**LARI:**

Atzizki honek erroaren azentua ezabatu egiten du:

bárria	bárre + lari	barrelaridxe		
bértzoa	bértzo + lari	bertzolaridxe		
dxantzaridxe	errementaridxe	errotaridxe	gusurlaridxe	merketaridxe
pekataridxe	pelotaridxe	probalaridxe	santzolaridxe	soñularidxe

**3.2. Atzizki azentudunak**

Atzizki azentudunetan hiru mota nagusi topa ditzakegu; aurreazentuatzaileak, aurre-aurreazentuatzaileak eta azentua biltzen dutenak. Aurreazentuatzaileetan eta azentua biltzen dutenetan, era berean, bortitzak eta ez bortitzak aurki ditzakegu.

*3.2.1. Aurreazentuatzaileak*

**BAKO:**

agínbakoa	amorébakoa	arribakoa	batéatubakoa	bixérbakoa
burúbakoa	dénporabakoa	erruedábakoa	esnébakoa	estíbakoa
gánorabakoa	igertúbakoa	ikisíbakoa	ikusíbakoa	káskarabakoa
kendúbakoa	lotzábakoa	mángabakoa	méndabakoa	presidxóbakoa
sulóbakoa	takóibakoa	tostébakoa	trentínbakoa	txilínbakoa

Erro azentudunen kasuan, adibideetan ikusten den moduan, lehen azentua gailentzen da. Erro silaba-bakarreko batzuekin “bako” ez da aurreazentuatzailea, adibidez: dxaibakoá, gasbakoá, goibakoá.

**ERA:**

lúseria	sabáleria	sakóneria	lodídxeria
---------	-----------	-----------	------------

**ERO:**

egunéro	urtéro
---------	--------

**ETA:**

amésetia	ólgetia	lapúrretia	bérbetia
----------	---------	------------	----------

**GEI:**

abadégedxe	andrágedxe	errágedxe	eskóngedxe
fraidégedxe	gixóngedxe	mojágedxe	suíngedxe

**KA:**

adárka	agínke	agúrke	árraka	arrike
áska	bárreka	díndiliske	estúlke	éusike
gáneska	kántaka	mustúrke	orroáka	saratáka
sáltuke	satíke	sótinke	txístuke	urrumedáka

**KERA:**

asíkeria	dxókeria	gorpúskeria	esákeria	ibílkeria
ixékeria	etórkeria	ekárkeria	siñéskeria	urtékeria

**KI:**

andíkidxe	sayéskidxe	txarríkidxe
goróstokidxe	koñétakidxe	koñetúkidxe

**KUNE:**

adíkunia      berbáikunia      esákunia      ibílkunia      korríkunia

**KUNTZA:**

asárrakuntzia      errákuntzia      larríkuntzia

**MEN:**

entzúmena      gosámena

**NTZA:**

labrántzia      bengántzia      esperántzia  
laskíntzia      konfiántzia      segurántzia

**NTZIA:**

alegrántzidxe      induljéntzidxe      denúntzidxe      diferéntzidxe  
distántzidxe      esperéntzidxe      inportántzidxe      komenéntzidxe

**OR:**

aldéskorra      áskorra      ikérorra      lótzorra      lódxorra

**RENGO:**

akabúrengoa      ásaurengoa      aspírengoa      átzerengoa      bérengoa  
eskiñarengoa      éurrerengoa      gánerengoa      górengoa      kánporengoa  
parajérengoa      sakónengoa      púnterengoa      trongórengoa      albórengoa

**RO:**

astíro      geldíro      luséro

**TAR:**

árrittarra      bakidxótarra      beñákarra      bílbotarra      bískaittarra  
emerandótarra      kánpotarra      katíkarra      mesteríkarra      mungídxarra

**TE:**

sikétia      gerrátia

**TI:**

bildúrtidxe      burlétidxe      eskértidxe      gusúrtidxe  
kakátidxe      lótidxe      lotzátidxe      moskórtidxe  
negártidxe      selótidxe      temátidxe      txixétidxe

**TOKI:**

umétokidxe      ollótokidxe      órrostokidxe      txarrítokidxe

**SALE:**

andrásalia      édarisalia      esnésalia  
okelásalia      gixónsalia      gosósalia

**SKA:**

asulískia      bellegískia      berdískia  
surískia      gorrískia      marróiskia

**SKIÑE:**

argískiñe      bellegískiñe      berdískiñe  
surískiñe      gorrískiñe      marróiskiñe

**TZA:**

alargúntzia	albañíltzia	alkatétzia	ariétzia	barberútzia
bedártzia	bustítzia	dxadxótzia	edúrtzia	errementarítzia
eskóntzia	esnátzia	kamionerútzia	karreterútzia	aixétzia

**UNE:**

andíttunia	atérrunia	erdíunia	eskútunia	gorríunia
illúnunia	istúunia	ixíllunia	larríunia	lísunia
sabálunia	sakónunia	sarrátunia	soldúunia	suríunia

**STO/DO:**

babástoa	aldístoa	bixérdoa	sapástoa
sorrístoa	tripástoa	txarrístoa	ugérdoa

**SULOA:**

aittäsuloa	amásuloa
------------	----------

**DI/TI:**

altzástidxe	sagárdidxe	arístidxe	artédidxe
gastañádidxe	mástidxe	pagódidxe	piñúdidxe

Atzizki hau aurreazentuatzailea izanik ere, erroaren azentua ezabatzen du:  
 árbolia            árbola + 'di            arboládidxe

*3.2.2. Aurre-aurreazentuatzaileak*

**PE:**

árripia	árbolapia	árkupia	átepia	bésopia
éllipia	érrapia	ókospia	súrpia	eskillérapia

*3.2.3. Azentua biltzen dutenak*

**ALDE:**

átzaldia	átzekaldia	éurrekaldia	bekáldia
errékaldia	goixáldia	kánpokaldia	barrukáldia

**ERA:**

Lekua edo instrumentoa adierazteko denean, azentua biltzen du:  
 kartéria            siminttéria            tartéria            mariñéria

**ERI:**

karnaséridxe  
 panadéridxe

**ERU:**

Lekua edo gailua adierazteko denean azentua biltzen du lehen silaban:  
 basurérue            erropérue            frutérue            kandelérue  
 metxérue            mortérue            txiskérue            sonrérue

**INGO:**

baltzíngoa	bardíngoa	gorríngoa	suríngoa
------------	-----------	-----------	----------

**ONE:**

aldistónia	andittónia	gallardónia	sapastónia
------------	------------	-------------	------------

**KADA:**

“ADA” atzizkia azentubakoa bada ere, “KADA” neurria edo zerbaiten barruan sartzen dena adierazteko denean azentua biltzen duenetakoa da:

astokádia	dxarrakádia	eskukédia	eutobuskédia	gurdikédia
gurtádia	kamioikédia	kollarakádia	platerkádia	sarankádia

Berba azentudunen kasuan, ondoko adibideetan ikusten den moduan, erroaren azentua ezabatzen du:

máidxe	mái + káda	maikédia
básue	básu + káda	basukédia

**ALDI:**

asaskáldidxe	deskantzuáldidxe	egotáldidxe	istuíldidxe
geldiáldidxe	ibilttáldidxe	ikustáldidxe	larriáldidxe

Erro azentudunetan honako hau dugu:

dénporia	dénpora + áldi	denporáldidxe
----------	----------------	---------------

**OSO:**

Atzizki honen jokabidea nahikoa berezia dela esan dezakegu; batzuetan azentua biltzen du lehen silaban eta beste batzuetan aurreko silaban txertarazten du. Edozelan ere, azentua hasieratik kontatzen hasita, bigarren silaban txertatzen da beti:

desgústosoa	engáñosoa	enpágosoa	errónkosoa
itxúrosoa	kuríosoa	drogósoa	dudósoa
famósoa	ganósoa	penósoa	tretósoa

**4. BERBA ELKARTUAK**

Berba elkartu gehienak azentudunak dira; azentueraren arau nagusia lehen konposagaiaren azken silaban azentua txertatzen duena da; adibidez:

adár apala	agó beroa	agó satarra	agó txarra
aixé firiñe	álbattia	aldásbera	aldásgora
alpérrarridxe	andarí bidia	ardí korotza	ardí narrue
ardí satza	ardí txakurre	aré eskue	aré subille
arnásestue	arróputze	artúemona	aspíola
astégune	astó arrantza	astó korotza	astóarra
astóemia	astókumia	atéertza	atún belarridxe
atxúr burue	atxúr kodañia	basó bedxe	batú sabaldue
begí argidxe	begí asala	begí ondoa	begíepela
begíerria	begínabarra	begísuridxe	begítxotorra
béi arra	béi gorridxe	bélañoa	beléun asurre
beró armiñe	beró larridxe	besátiria	biár bedxe
bidé ertza	bidxósturidxe	biskérrasurre	burriñure
burú ariñe	burú txoliñe	burúbaltza	dxadégune
dxesárlekue	edúr euridxe	edúr txotorrak	edúrtxotorra
egúnsentidxe	egúrdatia	erré sundia	erré usiñe
errí bedxe	errí bidia	errí ganadue	errí ollarra
eskillerá burue	eskú alboa	eskú gania	eskú pañelue
eskúartia	eskúberia	eskúbidia	esné barridxe

esné bedxe	esté mia	estégorridxe	etzé bixitzia
eurí lanbroa	eurí txistille	eurí ugerra	eurísiridxe
ganadú gorridxe	garbíunedia	garrímia	gasún askia
gátzure	gebón egune	góis gorridxe	gúrputia
gúrtedia	ikóesnia	ipúrsiriñe	irribarria
itxosó aixia	kalékumia	kanpátorria	kátarra
katúemia	katúkumia	lábotia	lastáberdia
léi baltza	léisuridxe	leixár arramia	lorá asidxe
lósurrumia	lósurrustedia	lúr baltza	lúr gorridxe
matrállagiñe	mátzondoa	múnarridxe	mutíl
mutíl kaskotia	negárranpulue	neskálagune	odéi baltza bardingoa
odéi montorra	odólbatur	ogí baltza	ogí klasia
ogí mamíñe	ogí mamurre	ogígastaya	olló abidxe
olló kantia	olló lokia	óñaspidxe	óndatxurre
oñés bidia	oridxó sundia	urrésuridxe	óskirridxe
óspikoa	otábarra	saldíkumia	sekór paradia
serú garbidxe	sorrímitxidxe	sorróstarridxe	sugói bedarra
surrúmurrue	trentzá sortia	trípandidxe	txakúrkumia
txakúrarrara	txakúrremia	txarrí girrintzia	txarriarra
txarriemia	txarrikumia	ulé kirtena	ulébaltza
ulégorridxe	ulémengela	ulésortia	ulésuridxe
umé lupue	umé misketue	umégorridxe	umékaskotetxue
umémokoa			

Lehen konposagaia azentuduna denean, berba elkartu osoaren azentua lehen konposagaiaren silaba berean ager daiteke; adibidez:

ápatxartia	árrotzasala	askóra astia	asúnberdidxe
báñe palue	baríku santue	bárre santzoa	bekóki illune
béskari koputxue	egúski suridxe	egúski txangotadia	erréka aixia
erréka ertza	eukálitu lurrunek	illúndi gorridxe	iñétasi txingorra
íntxur saltzia	órdu erdidxe	pistóla sopia	sírimiridxe

Kontrakzio bat jazotzen denean, azentua atzera daiteke lehen silabara edo bigarren konposagaiaren lehen silaban gera daiteke:

andráixia	besártia	betúlia	errotárridxe	etzáldia
etzáurria	gurpídia	gursótza	ságardoa	surrándidxe

Kasu bakar batzuetan azentua berba elkartuaren bigarren konposagaiaren lehen silaban kokatuta agertzen da:

artatxóridxe	dxatórdue	geubérridxe	goiáixia
odolóstia	ortusántue	osabédarra	otzíkeria

## 5. ONDORIOAK

Aurkeztu ditugun materialak eta azterketak kontutan hartuta, berba azentudun gehienak hiru bide nagusitatik sortzen direla esan dezakegu. Bate-tik mailegu asko erdaraz daukaten azentu bera atxekitzen dute euskaraz ere, hortik berba azentudun multzo handi bat sortzen da. Beste alde batetik, atzizki batzuek berba azentudunak sortarazten dituzte. Azkenik, berba

elkartu gehienak, beharbada elkartu zahar lexikalizatuak salbuespen bakarrak direla esan dezakegu, berba azentuduntzat hartu behar ditugu.

Hurrengo lanei dagokienez, uste dugu ezen, garrantzitsua dela atzizkien tasunak deskribatzea ahal denik eta barietate gehienetan erkaketak egin ahal izateko eta barietateen hedadurak geografikoki zehazteko.

## AIPAMENAK

- GAMINDE, I. (1998): *Euskaldunen azentuak*, Labayru, Bilbo.
- GAMINDE, I. (1999): "Bakioko Azentuaz", *FLV-80*, 73-94. or.
- GAMINDE, I. (2000): "Mendebaldeko Doinu-Azentudun Sistemen Intonazioaz" in Ormaetxea, Txipi (2000): *Txillardegi Lagun Giroan*, UEU, Bilbo.
- GAMINDE, I. (2000): Meñaka Berbarik Berba (eskuizkribua eta euskarri elektronikoa CDn).
- HUALDE, J. I. (1997): "Euskararen azentuerak", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak XLII, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia.

## LABURPENA

Behar honetan Meñakako euskararen azentueraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira, batez ere berba konposatuei dagokienez. Meñakako azentuera Bizkaiko iparraldeko doinu-azentudunen barietateen lurraldean kokatzen da. Lan honetan morfema azentudun eta azentubakoen arteko desberdintasun nagusiak aurkezten dira. Irizpide bi hauen arabera sailkatu dira erakarpen atzizkiak, kontutan hartzen dira batetik erroaren azentuari eragiten ez diotenak, azentudunak izanda edo izan ezta, eta bestetik, erroaren azentua ezabatzen dutenak. Sekzioetarik baten berba elkartuan azentuera aztertzen da. Elkartu hauek guztiak beti azentudunak dira eta kasurik gehienetan azentua arau finko baten arabera txertatzen da.

## RESUMEN

En este trabajo se analizan las principales características del sistema acentual del euskara de Meñaka en lo que respecta a las palabras compuestas. El sistema acentual de Meñaka se encuadra en la zona de las variedades de acento de pitch del norte de Bizkaia. En este trabajo se presentan las principales diferencias entre morfemas acentuados y no acentuados. De acuerdo con estos dos criterios se han dividido los sufijos de la derivación, teniendo en cuenta aquellos que no alteran la acentuación de la raíz, sean acentuados o no, y aquellos que anulan el acento. En uno de los apartados se analiza la acentuación de los compuestos. Estos compuestos son siempre acentuados y en la mayoría de los casos el acento se asigna por medio de una regla fija.

## RÉSUMÉ

On analyse dans ce travail les caractéristiques principales du système accentuel de l'euskara de Meñaka, en ce qui concerne les mots composés. Le système accentuel de Meñaka fait partie de la zone des variétés d'accent de pitch du Nord de la Biscaye. On présente dans ce travail les différences principales entre les morphèmes accentués et les non accentués. On a divisé d'après ces deux critères, les suffixes de la dérivation, en tenant compte de ceux qui n'altèrent pas l'accentuation de la racine, qu'ils soient accentués ou non, et de ceux qui annulent l'accent. Dans l'un des paragraphes, est analysée l'accentuation des composés. Ces composés sont toujours accentués et dans la plupart des cas, l'accent est assigné par le biais d'une règle fixe.

ABSTRACT

This study analyses the main features of the stress system applied to compound words in the Euskara used in Meñaka. The Meñaka stress system forms part of the pitch stress varieties from the north of Bizcaya. The main differences between stresses and unstressed morphemes are set out. The derivative suffixes are divided up according to this criteria, taking into account those that do not alter root stress, be they stressed or not, and those that annul stress. One section deals with the stress of compounds. These compounds are always stressed, stress being assigned by means of a set rule in most cases.